

# P R A X I S

---

## u n c o v e r R E C O V E R

6 ZK.


2011ko URTARRILAREN 13A - MARTXOAREN 13



ROBERT WATERS

ROBERT WATERS ARTISTAK GERRA ZIBILEKO HOBI  
KOMUNETAKO LURRA ERABILTZEN DU SENDABELARRAK  
LANDATZEKO, OROIMENA LAGUNTZEN DUTENAK BARNE,  
SENDATZE GIROA SORTZEKO ETA SUSTATZEKO XEDEZ.






**Cocimiento o decocción.**—Se utiliza generalmente para preparar tisanas a base de las partes duras de las plantas (raíces, cortezas, semillas, etc.) y para ello se procede de la siguiente manera:

En un recipiente adecuado (una olla, un pote, etc.) se pone la cantidad de agua correspondiente a la cantidad de tisana que se desea obtener, y a la misma se echa la planta (raíces, cortezas, etc.) convenientemente desmenuzada. Todo junto se pone en

frijo al fuego y se deja hasta que haya hervido durante unos quince minutos a fuego lento, ya que es mejor que no llegue a hervir muy fuerte; transcurrido este tiempo, se aparta del fuego y se deja tapado para que repose durante otros diez o quince minutos. Luego se pasa por un colador, y ya tenemos la tisana preparada y dispuesta para ser administrada.



**Infusión.**—Al revés del cocimiento, la infusión se emplea para obtener tisanas de aquellas partes de las plantas que por ser blandas y delgadas (hojas, flores, etc.) no exigen una acción de temperatura de tanta duración para extraer de ellas sus principios medicinales.

La manera de proceder es como sigue: En un recipiente adecuado y que no se rompa por la súbita acción del calor, se ponen las plantas de que se desea obtener la tisana. Sobre las mismas se echa agua

hirviendo en cantidad proporcionada, e inmediatamente se tapa bien dejándolo que de esta forma repose durante unos diez o quince minutos. Después, se pasa por un colador y queda lista la infusión. Se puede tomar igualmente en frío que en caliente.

Como se habrá observado, el cocimiento y la infusión se distinguen en que el primero se prepara en el fuego (el vegetal hierve unos 15 minutos), mientras que la segunda se obtiene fuera de él (el vegetal es sólo escaldado y ni hierve ni se pone al fuego).

# PRAXIS - I BURUZ

BLANCA DE LA TORRE

Komisaritzta - Comisaria - Curator

Praxis DIY (do-it-yourself) delakoaren kulturarekin loturik sortu da eta egungo krisialdi ekonomikoaren ondorio gisa. Aldi berean, laborategi edo lantegi esperimentalak izan nahi du, dinamikoa eta osagarria, eta urteko programaren aldamenen, hautazko modulu bat sortuko du modu beregainen.


Inprobisazioa da bere izaera eta birziklapena, prozesua, harremana eta, batez ere, ekintza zuzena eta «zerorrek egizu» delakoa dira oinarrian dituen balioak. Azken puntu horren helburua artistari askoz rol aktiboagoa ematea da, eta gaur egun artelanak subjektu-artistaren aldean duen nagusitasuna ezabatzea. Protagonismo hori era bateko eta besteko esparruetan nabaritu da, esate baterako, erakusketak antolatzen hasi eta bertatik egongo dira jendaurrerako zabalik, horrela bisitariak erakusketa bat nola eraikitzen den pausoz pauso ezagutu ahal izango dute.

Proiektu heteroeno sorta batek osatuko du Praxis, hirurogeita hamarretako punk mugimenduaren azpikulturaren sortu zen jarrera eta ekimena jasoko duena. Garai hartan artistek berek kudeatzen zituzten beren musika-taldeak, ekoizten zituzten beren diskoak, sortzen zituzten beren enpresak eta baita beren merchandising delakoa, elastikoak, txanoak..., eta autosustapenerako materiala ere.

Bestalde, DIY delakoaren kultura era esponontzian hazi da multinazionalen korporatibismoa sortzearekin batera, eta ideologia politiko eta soziala bihurtu da ia, «kontsumismorik ez» doktrina arteari ezarria. Praxis-en helburua, beraz, underground-ekoa eta erakundeetakoa elkarrekin adiskidetzeari da, bere statu quo berekiaren aurka borroka egitea, globaltasuna eta tokitotasuna elkartzeari, eta horretarako DIY delako kulturaren ohiko esapide bat bereganatu du: «globalki pentsatu eta tokian aritu».




# ESPAINIAKO HOBI KOMUNAK



Robert Waters artista hobi komun bateko lurra jasotzen ari dela, Oteitzan (Nafarroa)





### AJENJO

Esp.: Artemisa amarga - Hierba santa - Ajenjo romano - Hierba de los versos. - Cat.: Donzell - Donzell mascle. - Vasc.: Asensica. - Gall.: Axenxos

Uso: Al interior, en infusión a razón de 1 cucharita de café por taza; 2 ó 3 tazas al día.

Al exterior, en infusión, a la que se añade sal, para gargarismos contra anginas y catarros de la garganta; las hojas contundidas y calentadas, se aplican para calmar los dolores articulares.

## Somos la Naturaleza, durante mucho tiempo estuvimos lejos, pero ahora volvemos

-Hojas de Hierba (1969) Walt Whitman-en *Leaves of Grass* (1855)  
liburuaz Jorge Luis Borges-ek egindako itzulpena

Aranzadi Zientzia Elkartearekin harremanetan jarri eta gaiari buruzko hitzaldi batzuetan egon ostean, berehala lortu genuen Espainiako Gerra Zibileko eta horren gerraosteko hobi komun den desehorzketetako lurra jasotzeko baimena.


Hortik aurrera, faxismoak osturiko historien hilerri horiek bisitatzeko eta leku horietako lurra jasotzeko lanari ekin zion Robert Waters-ek, ondoren sendabelarren haziak eta eskualdeko beste espezie batzuenak ereiteko, oroimena berreskuratzen laguntzen dutenenak barne.

Horrela, Watersek giro terapeutikoa sortzen du Museoan. Ikusleari egongela batera sartuko balitz bezala egiten zaio harrera. Bertan, uraren xuxurlak ARTIUMeko Bildumako piezen soinubanda sortzen du, artearen ezaugarri sendatzaileekin jolastuz. Hori guztia gaiari buruzko dokumentazioaz lagunduta.

Watersek harturiko erreferentzietako bat Walt Whitmanen Belar Hostoak liburua (1855) da. Liburuaren azterketa kritikoa, lan horren egitura filosofikoaren analisia egiten saiatzen da Guillermo Nolasco Juárez. Lanean tradizionalki antitetikotzat harturiko hiru eremu era mirengarrian loturik aurki daitezke: filosofia, erlijioa eta zientzia.

Horretaz gain, azaltzen digu New Yorkeko poetaren kasuan lotura horrek zentzua duela. Izan ere, hiru adierazpide horiek bizitzaren misterioa argitzea dute azken helburutzat, baina bakoitzak bere ikuspegitik.

Watersek eraldatze-ekintza bat proposatzen du, Whitmanen aldaketaren eta bilakaeraren formulazioarekin bat datorrena. Horren arabera gauza guztiek beste gauza batzuetan eraldatzeko ahalmena dute.



**MENTA**  
Hierbabuena - *Menta piperita*

Uso: Al interior en forma de infusión, a razón de una cucharada de café de hojas por cada taza de tisana; tomar de tres a cuatro tacitas al día.

Al exterior, contra las quemaduras, se emplea la misma infusión batida con otra cantidad igual de aceite de olivas, y esta mezcla se aplica por medio de compresas empapadas, que se renuevan de vez en cuando.

Walt Whitmanek izatearen arkano sakonak menderatzen zituen, bilakaera eta metamorfosia aldaketaren graduak direla jakitun, eta haren filosofia, bere intuizio finarekin elikatua, aldaketan eta ez estratifikazioan oinarritu zen.

Eraldatze-prozesuen inguruko interes hori behin eta berriro errepikatzen da Watersen lanean, eta egungo gizarte post-industrialaren bilakaeraren, gizarte horrek izandako egitura-aldaketen eta gizakiak otzantzeko prozesua aztertzeko garapen epistemologikoaren esparruan kokatzen da. Haren lanak era originalean biologiaren eremua esploratzen du, alde gizatiarrarekin —adimena eta gorputza— eta horren transzendentzia-nahiarekin lotuz.

Zentzu horretan, naturarekiko harremana era gatazkatsuan aurkezten da artistaren lanean, bereziki gizakiaren hilkortasunari eta haren naturarekiko konexioari dagokienean. Halaber, proiektuak proposaturiko zikloaren bitartez sendotzen da puntu hori; izan ere, biktimen gorpuzkiek atsedean hartu duten lurrean hazten dira landareak.

uncover RECOVER biktimei, horien familiei eta publikoari berari egindako kaltea konpontzeko ekintza bihurtzen da horrela. Batez ere, denon ekintza da, galdutako oroimena berreskuratzen duen metafora.

Proiektu horren bitartez oroimena gordetzeko interesa Peter Tompkins eta Christopher Birden *La vida secreta de las plantas* (1973) liburuarekin lotu genezake. Bertan, egileek iradokitzen dute landareen munduak oroimena duela. Liburuak Goetheren landareen metamorfosiari buruzko teoriaren laburpen bat ere badauka. Teoria horren arabera landareen eta gizakiaren artean erlazio emozionala dago, baita espirituala ere.

Proiektuari erantsitako fanzinerako, artistak Adrian Vander doktorearen *Las enfermedades y su tratamiento por las plantas* liburuan inspiraturiko ilustrazio batzuk sortu ditu. Horretarako, landareen zikloaren eta giza gorputzen artean jolas metaforiko bat eratu du, hobi komunetako lurraren birziklatzeari lotuta.

Gaur egun, aldaketa kuantitatiboak kualitatibo bihurtzea lege unibertsalaren parte da, eta ezinezkoa izango litzateke aldatzea, beste bat izatea, gauza bakoitza bera eta bere kontrakoa ez balitz.

Blanca de la Torre



### ROMERO

Resmarina - Hierba de las coronas. - Cat.: Romer - Romani

Uso: Al interior, en infusión al 3 %, que se toma a razón de tres tazas por día en los casos de debilidad de estómago e inapetencia, bebidas a sorbos antes de las principales comidas. También se recomienda para fortalecer el pelo, usado igualmente en fricciones del cuero cabelludo, una vez al día.

En los demás casos, de dos a cuatro tazas al día. Al exterior, según hemos dicho, en maceración de alcohol, para fricciones; 100 gramos de planta por litro de alcohol, que se macera durante dos semanas.



### ESKER ONAK:

Julio Martínez Tobar, Daniel Castillejo, Blanca de la Torre, Dr. Adrian Vander, Aranzadi (Francisco Etxeberria, Jimi Jiménez, Juantxo Agirre), Shal, Soviet, Simon Dragland, Karin Dolk, Txaro Arrazola, Maite Garbayo, Ana Lezeta, Kepa Arza, Felix Saenz, Gotzon Etxeberria, Ed Hayes, Richard Moszka, Renee Jackson, Suzanne MacCullough, Lauren Aliende (Escuela de Artes y Oficios), Mainer Valdivielso, La Sociedad Cívico Cultural Landazuri, pm Gallery and my family.



ADOPTA EZAZU LANDARE BAT!

ERAKUSKETAKO LANDAREETAKO BAT  
ADOPTATU NAHI BADUZU, UTZI ZURE IZENA  
GELAKO ZERRENDAN ETA,  
HURRENGO IGANDEAN,  
MARTXOAK 13,  
JASO AHAL IZANGO DUZU.

INFORMAZIO GEHIAGO: TELEFONOA: 945 20 90 00



**Art  
ium**

Arte Guadalupeño  
Escuela Zúñiga-Muñoz  
Centro Museo Vasco  
de Villa Lombardero



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



**ARANZADI** zientzi alaitas . society of sciences  
sociedad de ciencias . società de sciences

